



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

Astigarragako baserritarren txosten sozioekonomikoa 2021

1.- Sarrera

Astigarragako Udalak, Goldea Elkartearekin batera, 2014an sortu zuen “Baserritarren Mahaia” izeneko batzordea. 2015etik 2019ra bilkurarik egin gabe, 2019an berriz aktibatu zen “Baserritarren mahaia”. Bertan, Astigarragako Udalaz gain, herriko baserritarrak, Goldea eta Baratze elkarteak eta hainbat eragile elkartzen dira lehen sektoreari eta baserritarrei bultzada emateko asmoz.

Mahaiak erabakita 2014an egindako baserritarren inguruko azterketa sozioekonomikoa eguneratu du Gaizka Irigoien Nekazaritza Ingeniariak. Eguneraketak baserri jarduera dutenez gain historikoki baserri izan direnak ere jaso ditu.

2.- Datu orokorrak: 109 baserri aztertu dira

Guztira 109 baserri aztertu dira, bertan bizi direnei inkestak eta bisitak eginda. Bertan 346 pertsona bizi dira (174 gizonezko eta 172 emakumezko). Biztanle kopuru horrek herriaren %5a ordezkatzeko du eta aldiz, lurraldearen %85ean eragiten du.

Bestetik, gehiengoa gizonezkoak dira %51tik gora (174) eta emakumezkoak %49 (172).

Batazbesteko adina berriz 52,09 urte gizonezkoetan eta 52,06 urte emakumezkoetan.

Kezkagarria gazteenen persona kopuru eskasa.

Eta aztertu diren baserrietatik, baserri jardueran 61 daude eta 48 landaetxeak dira. Hurrengo baserri jarduerak aurki daitezke:

- 35 baserrik dute baratza jarduera.
- 33 baserrik sagastiak dituzte.
- 20 sagardotegiak dira.
- 26 abeltzantza dute jarduera nagusi (animalirik ugariak, %40, hegaztiak dira -oilo, oilasko eta antzarrak-, ardiak %26, haragitariko behiak %18, gainerakoak – untxi, zaldi, e.a. %15).

3.- Azterketak jasotzen dituen datuen ezaugarriak

Azterketak, baserrien inguruko zenbait **ezaugarri** jaso ditu:

1.- Jarduera anitza, hau da jarduera bat baino gehiago dutenak %70 dira, batzuek 5 jarduera izateraino.

2.- Baserriaren jabetzari dagokionez, %96 jabetzan bizi dira eta %4 maizterrak.

3.- Lurraren jabetza, % 83 lurjabeak dira eta %4 maizterrak.



Astigarragako Udala

udala@astigarraga.eus

4.- Baserrien egoera ere aztertu da eta hauetatik %74 zaharrak dira baina zaharrak izanagatik bizitzeko egoera onean daude eta bertakoen ongizatea bermatzen dute.

5.- Errenta mailari dagokionez, %85k errenta-maila ertaina du, %7ak baxua eta %8ak altua.

6.- Salmenta bideak: Salmenta bideei buruz nabarmentzekoa, batetik, % 44ak ez dutela ekoiztutako produkturik saltzen eta bestetik %31k salmenta zuzena egiten dutela.

Aipatzekoak, kontsumo taldeen bilakaera ere, egun bi baserriar ari baitira kontsumo taldeetan beraien produktuak saltzen eta baita bere produktuak Donostiako San Martin merkatuan saltzen zituen Taula baserriak orain Astigarragara salto egin duela, bere produktuak Erribera Kulturguneko aterpeetan salduz.

7.- Lanpostuen aldetik, inkestek erakutsi dute baserri jarduerak ez duela lanpostu berriak sortzen, izan ere, egun 69 langile ari dira lanean, baina hauetatik 63 sagardotegietan, hau da ostalaritza lanetan.

8.- Baserriko lanei jarraipena emateari eta oinordekotzari buruzko datuak, kezkarriak dira. Izan ere, aztertutako 109 baserrietatik %62ak jarduearekin jarraitzeko asmoa badute ere, oinordekotza %37ak bakarrik dute bermatua.

Gazte kopuru baxuak, belaunaldi arteko erreleboa zailtzen du, argi baitago, ezin dela bermatu gaur ezagutzen dugun baserriaren etorkizuna, populazio gazterik ez badago.

Ziurtatuta dagoena epe labur eta ertainera, autokontsumorako nekazaritza eta abelzaintza eta larre garbiketarako abelzaintza da. Izan ere, elkarrizketen ondorioz, belardi eta terreneen garbitze eta mantentze lanak kezkatzen ditu baserriar zenbait. Horregatik, prest agertzen dira lurra mantzearen edo alokairu baten truke lur hoiek alokagai jartzera.

4.- Ondorio eta proposamen nagusienak

Inkestek emandako datuetatik ondorengo **ondorio nagusienak** atera daitezke:

1.- Lur berriak lehen sektorerara bideratzeko, erakunde publikoen eskuhartzea beharrezkoa dela, lurren poltsa bat sortu eta lurriari etekin gehiago ateratzeko.

2.- Belaunaldi arteko errelebo edo ondorengotza suspertu beharra. Nekazal eskolekin elkarlan estua beharrezkoa da, etorkizuneko baserriarren kualifikazio edo prestakuntza hobetzeko asmoz. Ondorengotza maila minimo bat bermatzen ez bada, baserrietako jarduerak galtzearekin batera, landa eremuaren babes eta kultura ere galduko baita (lanabes, landare eta ohituren izenen galera). Baserriarren ongizate-maila hobetu beharra da nahitaez: segurtasuna, irisgarritasuna, babes-maila...

3.- Kooperatiba edo elkarte ereduak bilatzea, aholkularitza, kudeaketa eta salmenta kanalak sendotzeko.

4.- Teknologia berriak landa eremura zabaltzea, batez ere, salmenta eta sustapena bilatzen duten ustiapen edo baserrietan.

5.- Laguntza programak zabaltzea, besteak beste etxebizitzak konpontzeko, errenta osagarri modura, elkarte edo kooperatibak sortzeko...

6.- Biztanlego orokorra ustiapenetara hurbiltzeko ekimen eta baliabideen sustapena (azokak, bisita gidatuak, promozio bereziak...)

7.- Informazio eta sentsibilizazio kanpainak baserria, baserritarak eta orokorrean lehen sektorea ezagutarazteko.

Bukatzeko ez dezagun ahaztu baserriak bestelako balioak ere badituela, Baserriaren balio anitza azpimarratu beharko genuke, izan ere paisaiaren antolakuntzan, ekologian, ondare kultural etnografiko eta kulturean eta baita hizkuntzaren kontserbazioan eragin zuzena du.

Azterketa hau egiteko baserritarrek eman dute erantzuna eskertu eta aitortu nahi dugu Udalaren, elkarteen eta herriko eragileen aldetik. Eta jasotako ondorioak betetzeko konpromisoa hartzen dugu.

Azaldu behar da, dagoeneko ari garela baserritarren mahaian agertu diren hainbat eskaerei erantzuna ematen:

- Epe laburrean, Astigarragako baserrien seinalizazioa jarriko da. Udalak 88.330 euro bideratu ditu horretarako.
- Landa eremuko bideen berritzea eta hobetzea, hala nola, baserri atarietan argiteria instalatuz, bideen asfaltatzea areagotuz., adibidez, laster Santio Zeharreko bi bihurguneak malgutuko dira 156.263,50 euroko inbertsioaren bidez.
- Ilarraren eta San Isidro egunetan antolatzen diren sentsibilizazio eta sustapen ekintzak indartuko dira aurten.
- Umakoko azoka-gunea sortzeko proiektua idazten ari gara bertan baserritarren salmenta-puntuak egokitzeko.
- HAPOren berrikuspenean baserritarren parte-hartze aktiboa bermatzen saiatzen ari gara.

Bestetik, aurten hurrengo ekimenak jarri nahi dira martxan:

- Baserriz baserriko erregistro-fitxa egitea eta bakoitzarekiko eskuartze eta sustapen plana gauzatzeko.
- Baserriari buruzko unitate didaktikoa prestatzea Herri eskolarekin batera.
- Baserri-jarduerei eutsi eta sustatzeko laguntza programa diseinatzea.

Astigarragan, 2022ko otsailaren 15ean